

Gradu Amaierako Lana

**Album ilustratuak alemanetik euskaratzen:**  
***Der Mondmann* obraren itzulpena**

Irati Ugalde Mendoza

Itzulpengintza eta Interpretazioa

2019-2020 ikasturtea

Tutorea: Naroa Zubillaga Gomez

Ingeles eta Aleman Filologia, Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila



LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## LABURPENA

Lan honen helburua Tomi Ungerer idazle eta ilustratzaile alsaziarrak 1966an argitaratutako *Der Mondmann* album ilustratuaren euskarazko itzulpena egitea da. Hainbat hizkuntzatar itzulia izan da, hala nola ingelesera 1967an (gero 2009an berrargitaratu zuten) eta gaztelaniara 2012an. Bertsio originalaz gain, bi hizkuntza horietara egindako itzulpenak ere kontsultatu ditugu gurea egiterako orduan. Hasiera batean, itzulpena bukatuta argitaletxeetara jotzeko ideia genuen, eta argitaratze-prozesuaren nondik norakoak lan honetan azaltzea; alabaina, COVID-19gatik bizi dugun egoeragatik, hori ez da posible izan.

Ezin dugu album ilustratuez aritu, ordea, berau barne hartzen duen sistema, haur eta gazte literatura (HGL), zer den eta zer ezaugarri dituen zehaztu gabe. Izenak dioen moduan, haur eta gazteak izango dira literatura honen hartzaile nagusiak, baina horrek ez du esan nahi eskusiboki haiei bakarrik zuzenduta dagoenik; ikusiko dugun bezala, testu askok helduei zuzenduriko elementuak dituzte, eta horrek anibalente bihurtzen ditu. Gainera, historian zehar haurraren kontzeptua aldatzen joan den heinean, HGLaren izaera ere aldakorra izan da, eta, beraz, zaila da generoari mugak jartzea eta HGLaren parte zer den eta zer ez esatea. Horrek guztiak HGLaren estatusen eragina du, helduen literatura baino maila apalago batean kokatzen baita.

Bestalde, Shavitek dioenez (1986), ez da generoaren inguruan saririk antolatzen ez unibertsitatetan irakasgai modura ematen, hezkuntzari lotuta ez bada. Testuaren hartzailea haurra izateak, beraz, inplikazio desberdinak ditu Shaviten hitzetan: halako testuak ez dira, helduen literaturaren antzera, kultur ondareztat hartzen, haurrak eta haien mundua gutxiesteko joera dagoelako, eta halako aurreiritziek testuaren izaera asko mugatzen duela kritikatu du autoreak. Album ilustratuak ere aipatu testuen barne daude. Gainera, Riitta Oittinenez azken horietan irudi-testu harremanak duen garrantzia azpimarratzen du (2003: 130), lotura horrek gidatuko duelako irakurlea ipuinaren azken orrialderaino.

Badirudi Ungerer kontziente dela bi autoreek diotenaz, eta haren lanetan ez dugu haurrak gutxiesteko joerarik aurkituko. Haatik, serioago hartu behar direla aldarrikatzen du, eta ez direla gehiegi «babestu» behar, ez ipuinetako eduki aldetik, ezta hizkuntzaren oparotasunetik ere. Horrela, Koldo Izagirrek itzulitako *Hiru Bidelapurrak* itzulpenaren azterketatik hasita, bere ipuinetako elementu garrantzitsuena aurkituko dugu bai

marrazkietan, bai erabilitako esaldietan: beldurra. Autoreak hurrek beldurra gaindi zezaten nahi zuenez, bere liburuak bihurtu zituen horretarako tresna.

Gure itzulgaian ere, beldurraz gain, hiztegi aberatsa aurkituko dugu batez ere. Autoreak hurrei mundua den bezalakoa erakusteko sinonimo eta izen ezberdin ugari erabili ditu, haurrarentzat onuragarri delakoan. Ingeleseko itzulpenak nahiko ondo jaso du bere baitan elementu hori; gaztelerazkoan, aldiz, itzultzaileak askatasun lexiko-sintaktiko gehiagorekin jokatu duela ohartuko gara, originalarekiko hain fidela ez den itzulpen bati bide emanez. Ondorioztatu dugu gaztelerazko itzulpena ingelesezkotik abiatuta egin dela, eta, gure ustez, hori izan daiteke testua originalarekiko hain fidela ez izatearen arrazoietakoa bat.

Gure aldetik, euskaratzerakoan fideltasuna eta ulergarritasuna izan ditugu uneoro balantzan. Haurrarentzako egokia eta entretenigarria den testua sortu nahi izan dugu, eta aldi berean, Ungererren ideiak bere horretan ekarri nahi izan ditugu gurera. Zenbaitetan euskararen berezko ezaugarriengatik ez zaigu posible izan jatorrizko edukia berdin mantentzea, eta halakoetan askeago jokatzeko lizentzia hartu dugu. Izan ere, beste hizkuntza hegemonikoetako itzulpenetan ez bezala, badirudi euskarazko itzulpenak egiterakoan oraindik badela halako beldur bat askeago aritzeari, eta guk, Ungererrek zioen modura, beldur horri gaina hartu nahi izan diogu.

Bai itzulpenak aztertzerakoan (Izagirrerren *Hiru Bidelapurak* eta *Der Mondmannen* ingelesezko eta gaztelaniazko bertsiok) bai guk itzultzerakoan ikusi dugunaren arabera, ondorioztatu dugu (ustez) testu sinple bat itzultzeak ere bere lana baduela. Hurrek jasoko dituzten lehenengotako hizkuntza ereduak izango dira album ilustratuak, eta garrantzitsua deritzogu instituzioek horri behar besteko arreta eskaintzea; izan ere, oraindik ez da literaturaren zati hau unibertsitatetan ikasgai modura ematen, hezkuntzaren arloan ez bada. Eta euskal HGLko merkatuan itzulpenak hartzen duen ehunekoari erreparatuta (% 60), beharrezkoa deritzogu generoari bideratutako prestakuntza euskaraz jasotzeko aukera izatea itzultzaileek, lan ona egingo dela bermatze aldera.

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
1. HAUR ETA GAZTE LITERATURA: MARKO TEORIKOA.....	7
1.1 HGLaren ezaugarri orokorrak.....	7
1.2 Album ilustratuak.....	11
2. JATORRIZKO TESTUAREN AZTERKETA.....	12
2.1 Egilea.....	12
2.2 Aurrekariak.....	14
2.2.1 <i>Hiru Bidelapurrak</i> : itzulpenaren azterketa.....	15
2.2.1.1 Kanpo faktoreak.....	15
2.2.1.2 Barne faktoreak.....	16
2.3 <i>Der Mondmann</i> : bertsio originalaren ezaugarriak.....	21
2.3.1 Kanpo faktoreak.....	21
2.3.2 Barne faktoreak.....	22
2.4 Gainerako hizkuntzetara eginiko itzulpena.....	23
3. GURE ITZULPENA.....	27
4. HGLKO LANAK ARGITARATZEA EUSKAL LITERATUR SISTEMAN.....	36
5. ONDORIOAK.....	37
BIBLIOGRAFIA.....	40

## SARRERA

Haurrentzako album ilustratu bat itzultzeak hasiera batean lan sinplea badirudi ere, behin horretan jarrita konturatuko gara ipuinek lehen begiradan antzematen ez diren hainbat sekretu gordetzen dituztela barnean: hitzen eta irudien arteko harremana, koloreen sinbolismoa, hiztegi aberatsa, etab. Erronka baten aurrean dago itzultzailea bi hizkuntza ezberdinen arteko funanbulista-lanetan, fideltasunaren eta ulermenaren arteko oreka horretan itzuli behar baitu testua, bertsio originalaren funtzioa mantenduz. Eta guk, oreka horri eutsiz, *Der Mondmannen* itzulpen posible bat egin nahi izan dugu lan honetan.

Itzulpena egiteko aukeratu dugun album ilustratua Tomi Ungererren *Der Mondmann* izan da, 1966an argitaratu zena. Itzulgai hau aukeratu dugu autoreak baduelako berezitik zerbait, Maurice Sendak berbera liluratu zuena: errealitatea den bezalakoia erakusten zien Ungererrek haurrei ipuinetan, bere alde on eta txarrekin. Marrazki ederrez apainduak, haurrenganako begirunearen isla dira bere lanak, errespetuz eta zintzo hitz egiten baitzien Ungererrek txikieneei. Helduentzako ilustratzaile profesionala ere bazen, eta haren sormen lana beti eztabaiden jomuga izan bazen ere, horrek ez zion eragotzi Hans Christian Andersen haurrentzako narratiba saria jasotzea 1998an. Gaur egun, urte hauen guztien ostean ere, oraindik liburu dendetako apaletan aurkituko ditugu bere lanak, HGLan oso preziatuak izan diren eta oraindik badiren seinale.

Ipuinean, Ilargi Gizona bakarrik eta asper-asper eginda dago bere zeruko txokoan; lurarren antzera dantza egin eta ondo pasatu nahi du. Hala, gau batez, Lurrera iritsiko da kometa baten buztanari helduta. Baina Ilargi Gizonak, izaki bihozbera eta zintzoa denak, laguntasuna eta elkartasuna aurkitu beharrean, bere aurka dagoen gizarte batekin egingo du topo, ezezaguna baita Lurreko biztanleentzat. Eta ezezagunak, gizartean ezarritako ordena perfektuaren aurrean, zoritxarrez, «mehatxua» esan nahi du. Ipuina argitaratu zenetik mende erdi baino gehiago igaro bada ere, autoreak egindako kritika soziala ez zaigu arrotza izango gaur egungo gizartearen aurrean ere.

Alabaina, lan hau ez da gure itzulpenarekin hasiko. Hori baino lehen, HGLa eta album ilustratuak zer diren ikusiko dugu gertutik; haurren kontzeptua zein izan den gizartean eta nola eragin duen horrek generoan, eta gero, Koldo Izagirrek Ungererren *Hiru*

*Bidelapurrak* euskaratzerakoan erabilitako baliabideak aztertuko ditugu. Ondoren ikusiko dugu zein den gure itzulpena, eta nola jokatu dugun erabaki bat ala bestea hartzerakoan. Azkenik, lan honetatik ateratako ondorioak bildu ditugu, baita erabilitako bibliografiaren zerrenda ere.

# 1. HAUR ETA GAZTE LITERATURA: MARKO TEORIKOA

## 1.1 HGLaren ezaugarri orokorrak

Haur eta gazte literaturari buruz arituko bagara, lehenik eta behin berau zer den definitu behar dugu, aztergai dugun generoaren mugak finkatzeko. Baina horrek buruhauste bat baino gehiago eragin ditzake, ez baitago definizio unibertsal bat. Riitta Oittinenek *Traducir para niños* (2005: 79) lanean dioenez, hartzaileak definitzen du literatura mota hau; zer idatzi den baino garrantzitsuagoa baita norentzat idatzi den.

Juan Cervera haratago doa *Teoría de La literatura infantil* (1991) liburuan eta teoria globalago bat proposatzen digu, galdera bat planteatuz: nahikoa izango al litzateke haurra hartzaile moduan egotea haur literaturaz hitz egiteko? Bere hitzetan, aurretik esandako guztiaz gain, haur-literaturan haurrari interesatzen zaizkion adierazpen eta jardura guztiak sartzen dira, artistikoak edo jolasteko helburuarekin izan daitezkeenak. Bere baitan hartzen ditu bai haurraren irudimenezko mundua bai eguneroko inguruneak, ideiak, sentimenduak, jostailuak, fantasiako izakiak... hau da, haur literatura, azken batean, haurra hartzaile fisikotik baino haratago joango litzatekeen kontzeptua da (Cervera, 1991:10); beraz, HGLak hartzen duen esparruari mugak jartzea ez da uste bezain lan erraza.

Haur eta gazte literaturaren historia ulertzeko, lehenik eta behin haurraren kontzeptua ulertu behar da historian zehar, etengabe aldatu baita, garai eta leku bakoitzeko pentsamoldearen arabera. Hala azaltzen du Zohar Shavit-ek *Poetics of Children's Literature* lanean (1986). Haur literatura egoteko, lehenik eta behin haurrak berak existitu behar zuela dio. Industrial Iraultzara arte haurraren kontzeptua ez zen existitzen; bizi-baldintzek, horien artean haurren heriotza-tasa handiak eta bizitzaren iraupen laburrak, haurtzaroaren ezjakintasun kontzeptuala indartzen lagundu zuten. Haurtzaroa aldi *hauskorregia* zen, eta bizirik iraun zuten haurrek lehenbailehen sartu behar zuten helduaroan. Honenbestez, haurtzaroa eta haurren beharrak ez ziren gizartearen ardura izan XVII. mendera arte. Haurrak indibiduotzat hartzen hasi ziren, baina aldaketa materialak ez ziren mende bat beranduago arte iritsiko, hots, haurrei zuzenduriko lehenengo lanak, haurrak hezteko helburu didaktikoa zutenak (Shavit, 1986).

Historikoki, haur eta gazte literaturaren jatorria ahozko tradizioan dago, herri-ipuinetan, haurrei eta nerabeei zuzendutako literatura ez baitzen hasiera batean XVIII. mendera

arte sortu. Lehen aipatu bezala, garai haren inguruan hasi ziren haurtzaroa helduaroaren eta interes eta behar propioak zituzten haurren fase desberdin gisa hartzen.

XIX. mendean haur-literaturaren gorakada gertatu zen, neurri handi batean, alfabetatzearen gorakadagatik eta eskolatzearen derrigortasunagatik. Orduetik, haur-literatura hezkuntzaren eta eskolaren eskutik joan da beti, ipuin tradizionalak irakaskuntzarako erabiltzen baitziren sarritan (Colomer, 1999:83). Hainbat mendetan, ikuspegi didaktiko hori izan da haur-literaturaren zati handi bat existitzearen arrazoia, eta entretenimendu-zatia aitzakia baino ez zen hurrek irakaspena barneratu zezaten.

Hala ere, Colomerrek *Introducción a la literatura infantil y juvenil* (1999) liburuan azpimarratzen du ikuspegi hori aldatzen ari dela: gaur egun indarra galdu du haur literaturaren helburua irakaspena zabaltzea delako ideiak, eta garrantzi handiagoa du entretenimenduak eta literaturak berak.

Hark dioenez, hiru funtzio nagusi ditu gaur egungo haur literaturak:

- Gure gizartean irudiak, sinboloak eta mitoak erabiltzen ditugu mundua eta gainerako pertsonetik harremanak irudikatze eta ulertzeko. Haur literaturak tipifikatutako formula horiek ezagutzen laguntzen dio haurrari, eta haien bidez, baita mundua eta inguruko pertsonak ere.
- Forma narratiboak ulertzen eta horietara ohitzen laguntzen dio haurrari.
- Bai Colomerrek (1999: 41) bai Cerverak (1991: 13) funtzio sozializatzailea azpimarratzen dute, literatura honek haurrari mundu erreala nolakoa den erakusten baitio.

Oittinenek azken funtzio bat gehitzen du *Traducir para niños* lanean: bere esanetan, hurrek beren identitateak indartzen dituzte liburuen bidez (2005: 69) eta «un libro infantil debería también consolidar los sentimientos de empatía e identificación del niño» (2005: 84). Horrela, guk itzultako Tomi Ungererren *Der Mondmann* album ilustratua aurretik esandakoaren adibidea da, hurrei mundu erreala nolakoa den erakusteko saiakera bat baita.

Umeentzako literaturaren beste berezitasun bat da, audientziari dagokionez, maila txikiagoko generotzat hartzen dela. Hartzaileen arabera zehazten da testua zer genero literariotan sartuko den, eta genero jakin batekoa izateak inplikazio desberdinak ditu.



Shavitek dio bereizketa bat egiten dela literatura *errealaren* eta haur-literaturaren artean, azken hori, helduentzako literatura ez bezala, ez delako kultur ondareztat hartzen (1986: 33). HGLa ez da aztergaitzat hartu unibertsitateetan, ez bada hezkuntza arloari lotuta izan, lehen aipatutako arrazoi beragatik: ez da inoiz literatura beraren ataltzat hartu, hezkuntzaren zatitzat baizik, haurra doktrinatzeko modu gisa.

Bestalde, XX. mendera arte ez da genero honen inguruan saririk antolatu, eta antolatu direnean, lanaren alde pedagogikoaren arabera saritu direla kritikatzeko du Shavitek. Beste literatura generoak epaitzeko irizpide *normalek* ez dute balio literatura hau epaitzerako orduan, baizik eta irizpide berezi eta propio batzuk ezartzen dira horretarako, bi literaturen arteko desberdintasuna markatuz. Eta, Shaviten arabera, garrantzitsua da horri erreparatzea, haurrentzako sortutako testuetan eragingo duelako bai beste sistemek HGLaz duten irudiak, bai HGLak berak bere buruaz duenak ere (1986: 35). Gainera, sistema literario kanonikoak HGLa gutxiestearen eta estigmatizatzearen beste arrazoi bat, O'Connellek dioenez, emakumeek menderatu izan dutela da, HGLko bai idazle eta bai itzultzaile gehienak emakumeak direlako (O'Connell in García de Toro, 2014: 126-127).

Irakurle motaren eta irakurketa-mailaren arabera, haurrentzako eta gazteentzako literatura lanen bi multzo bereiz ditzakegu: lehenengoan, literaturaren azpistema den HGLarekin soilik lotuta daudenak sartzen dira (Grenz, 1990). Bigarren multzokoak publiko jakin bati zuzenduta ez dauden lan guztiak dira, eta horietan interpretazioa hartzailearen irakurtzeko gaitasunaren arabera da. Azken horiek testu «anbibalenteak» (Shavit, 1986) edo «anbiguoak» (Grenz, 1990) bezala ezagutzen dira, irakurlearen gaitasun eta esperientzia literarioan oinarritutako interpretazio ezberdinak ahalbidetzen dituztelako.

Aztergai dugun Ungererren lana ere kategoria horretan sailkatuko genuke. Haurrentzat zuzenduta dago, baina helduek ahots altuan irakurtzeko egina. Adibidez, erabilitako elementu batzuk aipatzeagatik (geroago landuko ditugu itzulgaiaren ezaugarriak), esaldiak motzak dira, koma eta puntu ugarirekin, ahots altuan irakurtzen dagoenari (helduari) arnasa hartzeko denbora emateko. Marrazkiak ere oso koloretsu eta biziak dira, erakargarriak izan daitezke haur zein helduentzat. Baina, batez ere, helduarenganako keinua liburuaren azalean aurki dezakegu: alde batetik, letra handiz azaltzen da idazlearen izena, zeina oso ezaguna den helduentzako ilustrazioaren

munduan (hau idazleari buruzko puntuan sakonago azalduko dugu) eta bestetik, Maurice Sendak idazle ezagunaren gomendioa dator atzeko aldean, seguru asko heldua albuma erostera bultzatzeko.

Testu anbibalenteak aipatzerakoan *Robinson Crusoe* edo *Gulliverren Bidaiak* liburuak datorzkigu gogora, helduentzako literatura izanik ere gaur egun haurren esku aurki daitezkeenak. Ewers-ek (2009) ere bereizketa bat egiten du liburu horien eta HGLko besteen artean. Ewersen hitzetan, nahiz eta «mezua» (liburua) literatura talde jakin bati zuzenduta egon, komunikazio literarioan beti egongo dira usteko ez ditugun hartzaileak, hamaika bitartekari baitaude igorlearen eta hartzailearen artean. Honenbestez, hasiera batean helduentzat ziren obrak ere aurkituko ditugu HGLaren barruan, nahiz eta haurrentzat moldatu diren.

Estatusari dagokionez, Shavitek bezala, O'Connellek ere lan gehienetan anbibalentzia azpimarratzen du *Translating for Children* artikuluan. Haurrek irakur ditzaketen testuei buruz ari da, baina, aldi berean, testuaren interpretazio sofistikatuagoa helduentzat gordetzen dutenei buruz, helduak erakartzea ere oso garrantzitsua baita (1999: 209-210). Izan ere, nahiz eta haurra izan testuen hartzailea, helduek dute boterea eta eragina: helduak dira testu hauek idazten eta editatzen dituztenak, eta helduak dira dandan liburuak aukeratzen eta erosten dituztenak. Eskaera konplexu bati erantzun behar dio HGLko idazleak, gizarteak espero baitu bere lana haurrek zein helduek (eta bereziki «kulturako jendeak») gogoko izatea (Shavit, 1986: 37).

Botere horren adibidetzat *Der Mondmannen* autoreari, Tomi Ungererri, gertaturikoa datorkigu gogora: mespretxatu egin zuten helduek eta editorialek Estatu Batuetan, kamasutra liburu bat egin zuelako. Nahiz eta horrek haurren literaturarekin zerikusirik ez izan, helduek ezin zuten onartu horrelako autore batek haurrentzat idaztea, eta haren liburuak erosteari uko egin zioten, haren lanak liburutegietatik eta liburu-dendetatik kentzeraino. 2008. urtera arte ez zen hasi Phaidon Press argitaletxea berriz AEBn Ungererren liburuak argitaratzen.

## 1.2 Album ilustratuak

Hitzezko eta irudizko elementuak dituen liburu oro ez da album ilustratutzat jotzen. Ikerlari asko saiatu dira zer den album ilustratua eta zer ez zehazten, eta lan sinplea ez den arren, oinarrizko bereizketa garrantzitsu bat egitera iritsi dira, hots, album ilustratuen eta liburu ilustratuen arteko bereizketa (Nikolajeva & Scott, 2000: 225). Azken horiek irudiekiko autonomia osoa edo ia osoa duen testu bat dute; kasu horietan, testua da garrantzitsuena, eta irudia bigarren mailan geratzen da, osagarri moduan.

Album ilustratuetan, ordea, irudien eta testuen arteko harremana bestelakoa da, ezaugarri komun bat izateraino iritsiz zenbait autoreren esanetan. Album ilustratuetan erabateko komunikazioa bermatu dadin, autore horiek ezinbestekotzat jotzen dute hitzen eta irudien arteko elkarreragina (Nikolajeva & Scott, 2000: 225). Riitta Oittinenen arabera, «elkarri josita» daude bi elementu horiek: batzuetan irudiek gidatuko dute irakurlea, testuak bestetan. Eta album ilustratuaren irakurlea izango da istorioa sortuko duena, hitzezkoa eta bisuala oinarri hartuta, bien arteko hutsuneak betez (2003: 130).

Colomerrek ere erlazio horren garrantzia azpimarratzen du *Siete llaves para valorar las historias infantiles* (2002) lanean. Autorearen esanetan, irudiak eta testuak elkarri eragiten diote istorioa azaltzeko; beraz, gertakizunen haria jarraitzeko hitzak bezain beharrezkoak dira irudiak (2002: 20).

Nikolajevak eta Scottek hitza/irudia interakzio-espektro zabala aztertu dute *How Picturebooks Work* liburuan. Autoreek diotenez, saiakera asko egin dira hitzen eta irudien arteko harreman mota deskribatzeko, album ilustratuen tipologia zehazte aldera. Alabaina, egindako proposamenekin ez daude ados, haien ustez ikertzaileek proposatutako kategoriak baino espektro zabalagoa hartzen dutelako hitza-irudi harremanen barietateak (2000: 226). Beste espektro bat proposatu dute autoreek, orain azalduko duguna.

Aztergai dugun album ilustratua non kokatzen den jakiteko, arestian aipatutako Nikolajeva eta Scotten espektro zabala irudikatuko dugu: demagun marra bat dugula, mutur batean irudirik gabeko testuekin eta bestean testurik ez duten album ilustratuekin. Autoreen arabera, lehenengo muturretik zenbat eta hurbilago kokatu testu bat, hitzek

garrantzi handiagoa izango dute irudiek baino; testua bigarren muturretik hurbilago badago, berriz, irudiek izango dute nagusitasuna. Espekto horretan, gure ustez, *Der Mondmann* nahiko erdialdean kokatzen da, bi elementuek baitaramate istorioaren ildoak: gauden orrian gaudela, egia da marrazkia dela zatirik handiena (batzuetan ia bi orrialdeak osorik izateraino), baina istorioa ezin da guztiz ulertu testuaren laguntzarik gabe.

Aipatu nahiko genuke, ordea, aldaketa txiki batzuk gertatu direla testuaren aldetik bai ingelesezko eta baita gaztelaniazko itzulpenetan. Ilargi Gizona ziegan dagoen orrialdean, esate baterako, aipatutako bi bertsiotan originalean ez dagoen paragrafo bat gehitu dute (aurrerago aztertuko dugu fenomeno hau). Bestalde, istorioari amaiera ematen dion paragrafoa azken orrialdean aurkituko dugu bai ingelesezko bertsiotan, baita gaztelaniazkoan ere, baina originalean paragrafo hori bera aurreko orrialdean dago, eta azkenengoa irudiak hartzen du guztiz. Itzultako bertsiotan testuari autonomia gehixeago ematen saiatu direla ondoriozta dezakegu honekin; nolana ere, ez dira aldaketa handiak, eta orain arte aipatutakoak ez du Nikolajeva eta Scotten espektoan itzulpenen posizioa aldatzen. Aurrerago ikusiko ditugu itzulpenak, baina horren aurretik, jatorrizko testua aztertuko dugu.

## 2. JATORRIZKO TESTUAREN AZTERKETA

### 2.1 Egilea

Tomi Ungerer 1931n jaio zen Estrasburgon, Alsazian (Frantzia), eta duela gutxi hil da, 2019an hain zuzen ere, 87 urterekin. Karikaturista, kartelgile, eskultore, haurrentzako liburuen idazle eta ilustratzailea izan zen. Batez ere, Hayo Freitag-en *Die Drei Räuber* (*Hiru Bidelapurrak*, 1961) eta Jeff Brownen *Flat Stanley 's Worldwide Adventures* (1964) haurrentzako liburu klasikoa ilustratzeagatik egin zen ezaguna. *Der Mondmann* album ilustratua, gure aztergaia izan dena, 1966an argitaratu zen, eta kritika onak jaso zituen HGLko autoreen artean: Book Week saria irabazi zuen 4 eta 8 urte bitarteko liburuen kategorian ingelesez atera zutenean 1967an (*Tomi Ungerer: Official Website*, 2017) eta hori gutxi balitz, Maurice Sendak idazleak Ungererren lana «azken urteetako album ilustraturik onenetako bat» zela esan zuen (Babar, 2012).

Zaila da Ungererren obrak kategoría batean sailkatzen, baita autorearentzat berarentzat ere. Bere hitzetan, «My repertory of books diverges into many branches: books for children, autobiographical books, philosophical writings, satirical and erotic drawings» (*Tomi Ungerer: Official Website*, 2017).

Ungererren obretan komentario satirikoak eta irudi lotsagabeak aurki ditzakegu, tabuak hausteko intentzioz eginak. Gerraren eta arrazakeriaren aurkako kartelak ere egiten zituen. Honenbestez, Ungererren lana eztabaidagarria izan da beti; denbora luzez haren liburuak debekatu egin zituzten AEBetan eta Erresuma Batuan (*Lambiek Comicipedia*, 2020). Adibidez, eskandalua izan zen *Hiru Bidelapurrak* ipuinaren azalean aizkora bat marraztu zuelako, eta kentzeko eskatu zioten (Morgenthaler, 2010). Beste sari batzuen artean, Ilustratzaileen Elkartearen Urrezko Domina eta Hans Christian Andersen Saria jaso zituen 1998an. Marrazkilaria ez ezik, filantropoa ere bazen, kausa humanitarioetan murgildu baitzen. Gainera, bere museo propioa ere badu (*Tomi Ungerer: Official Website*, 2017).

2010ean *Apartamento* aldizkariaren seigarren alean Daniel Morgenthalerrek Tomi Ungererri eginiko elkarrizketa bat zetorren. Horri esker jakin dugu autoreak zer iritzi zuen album ilustratuei buruz, baita haurraren inguruan zuen kontzeptua ere. Shaviten arabera (1986), faktore horiek baldintzatuko dute autoreak haurrentzat zer eta nola idazten duen.

Album ilustratuei dagokienez, Ungererrek zioen ilustrazioa eta idatzizkoa txanpon beraren bi aurpegiak direla, elkarren osagarri baitira (Rocco Staino, 2019). Idatziz esan ezin daitekeena marrazkien bidez adierazten dela zioen, eta alderantziz. Bat dator, beraz, Oittinenek (2003) dioenarekin, irudia eta idatzitakoa elkarri lotutako entitateak diren ideiarekin.

Pedagogoei kritikak egin izan zizkietenean, horrela azaldu zen bera:

“They (the pedagogues) don’t believe in having instilling feelings into children’s reality: no blood, no alcohol, no cigarettes... [...] I think children’s book and education should give children a taste for life, even if it tastes bad. In all my

children's books there is some element of fear. [...] Why? It's very important, because you have to overcome your fear" (Brad Bernstein, 2014)

Bere lanetan, beraz, bere ustez beti babestua egon den baina beldurrari aurre egiteko ausardia aurkituko duen irakurleagoari zuzenduko zaio Ungerer, eta absurdoa ulertuko duenari. Haurrak serioago hartu behar direla aldarrikatzen zuen, batzuetan helduak baino askoz argiagoak direla defendatuz. Shavitek bere lanean dio HGLko zenbait idazlek haurren gaitasunei buruzko aurreiritziak dituztela, eta testuaren izaera asko mugatzen duela horrek. Ungererren testuetan, ordea, ez dugu mugarik aurkituko, ez gai ez hizkuntza aldetik: hurrei gai ilunak ere erakutsi behar zaizkiela uste zuen (nazismoa eta gerra, esaterako) eta gauzei bere izenez deitzearen garrantzia aldarrikatu zuen lanetan, hitzak sinplifikatzea haurrentzat aberasgarria ez zelako ustean.

## 2.2 Aurrekariak

Guk itzulitako album ilustratua ez da Tomi Ungererren lanen artetik euskarara ekarritako lehena. Alde batetik, Kalandraka eta Pamiela argitaletxeek elkarlanean autore honen *Lagun berriak* album ilustratua argitaratu zuten 2018an, eta Ainhoa Irazustabarrena ibili zen itzultzaile lanetan. Originala 2007an argitaratu zen, Diogenes Verlag argitaletxearen eskutik.

Ungererrek gizartearekiko duen alde kritikoa erakusten du ipuin horretan: haur afrikar eta asiarrak baten arteko laguntasuna erakutsiz, arrazismoa eta intolerantzia gaitzesten ditu; beste kultura batzuekin lotutako topikoak hausten ditu eta kultura eta arte aniztasuna defendatzen du. Gainera, irakurlea gogoko dituen gauzak egitera bultzatzen du, gizarteak edo besteek diotenaren gainetik (Oliver, 2018; Cortés, 2019).

Autore honen beste album ilustratu bat Koldo Izagirrek Euskaratutako *Hiru Bidelapurrak* (*die Drei Räuber*, Diogenes Verlag) da. Haur Literaturaren klasiko garaikide bat da, lehen aldiz alemanez 1961ean argitaratua. Hau ere Pamielak eta Kalandrakak koedizioan argitaratu zuten 2001ean, Amets egiteko bilduma-ren barruan. Zenbait akats zuzendu eta gero, 2011n egin da album ilustratuaren azken euskarazko argitalpena, Kalandraka eta Pamielaren eskutik hau ere.

Aipatutako bi lan horiek alemanez daude jatorrizko bertsioan, baina ez gaude ziur euskaratutako bi lanak zuzenean itzuli diren. Izan ere, Irazustabarrenak alemanez badaki, eta pentsatzekoa da alemanezkotik abiatuko zuela itzulpena, baina Izagirrek ez daki alemanez, eta, beraz, zeharkako itzulpena egingo zuen.

Ungererren beste lan batzuk ere itzuli dira euskarara, hain zuzen ere egileak frantsesez idatzitakoak: *Otto: ilaunezko hartz baten biografia* (2006an euskaratua) eta *Zeraldaren erraldoia* (2011n euskaratua). Biak ere Itxaro Bordak euskaratu zituen frantsesetik, eta biak ere Uztaritzeko IKAS argitaletxean.

Hasiera batean, gure ideia itzulpen horiek maileguan hartu, irakurri eta erabilitako hizkuntza baloratzea zen, hain zuzen ere, haurrari nola zuzentzen zaien ikusteko eta irudi-testu harremana iruzkintzeko. Dena den, COVID-19ak eragindako larrialdi egoera dela eta, ezin izan ditugu, tamalez, lauak aztertu. Izagirrek itzultako *Hiru Bidelapurrak* bakarrik izanik eskuartean, horixe izango da hemen behean iruzkinduko duguna. Originala ez dugunez, ez dugu konparaziorik egingo, hartzaile bezala nola iritsi zaigun komentatu baizik.

### 2.2.1 *Hiru Bidelapurrak*: itzulpenaren azterketa

Atal honetan, beraz, Izagirreren itzulpena hizkuntzaren aldetik hartzaileari (kasu honetan, guri, ama hizkuntza euskara duen irakurle helduari) nola iritsi zaion baloratzea izango da gure helburua; Christiane Norden (2009) eskeman oinarrituko gara horretarako. Nordek kanpo faktoreak eta barne faktoreak bereizten ditu testuaren azterketa egiterakoan, eta halaxe egin dugu guk ere.

#### 2.2.1.1 Kanpo faktoreak

Lehen esan bezala, Izagirrek originala argitaratu eta berrogei urtera egin zuen euskarazko itzulpena, eta Pamiela eta Kalandraka argitaletxeek koedizioan atera zuten merkatura. Nahiz eta argitaletxeak berak 5 urtetik gorakoentzat gomendatu, Galtzagorri

Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteak 8 urtetik gorakoentzako ipuinen artean sailkatu du.

Testuaren funtzioa europar haur literaturako klasiko hau euskarara ekartzea da, haur euskaldunen entretenimendu eta gozamenerako. Gainera, Tomi Ungererri buruzko atalean aipatu dugun bezala, album ilustratu honetan ere Ungererrek hainbeste gogoko duen beldurraren elementua agertzen da, eta Galtzagorri elkarteak dio horrek haurrei beldurra gainditzen laguntzeko liburu paregabea bihurtzen duela (Galtzagorri Elkartea, d.g).

#### 2.2.1.2 Barne faktoreak

Hiru bidelapur dira ipuin honetako protagonistak: gaiztoak dira, izua zabaltzen dabilta eta jendeari ahal duten guztia lapurtzen diete, gero beren gordelekura eramateko. Gau batean, ordea, Uxue haur umezurtza ezagutuko dute, eta horrek bizitza aldatuko die, lapurtutako guztiarekin haur umezurtzei laguntzen hasiko baitira.

Gai nagusia da denok dugula aldatzeko aukera. Bidelapurren lana lapurtzea eta izua zabaltzea da, baina besterik ezagutzen ez dutelako egiten dute hori. Haur umezurtz batek, ordea, bizimodua aldaraziko die, eta erakutsiko die lapurtutako ondasun guztiekin haur askori lagundu diezaieketela. Ungererren bizitzako jarraibide bati lotuta dago gaia: «You have to give destiny its destination» zioen berak (Morgenthaler, 2010); alegia, esku artean duguna zer den baino, garrantzitsuagoa dela horrekin zer egiten dugun.

Beste gai batzuk ere presente daude ipuinean zehar, hala nola, aurretik aipatutako idazlearen «funtsezko elementua» den beldurra, samurtasuna, eskuzabaltasuna eta elkartasuna. Eta gainera, hartzailea haurra den kasuan, album ilustratu honen bidez abandonatutako edo gurasorik gabeko umeak eta adopzioa bezalako gai delikatuak ere ezagutzeko aukera izango du.

Jarraian, itzulpenean aurkitu ditugun bi elementu esanguratsuenak aztertuko ditugu: testu-irudi harremana eta erabilitako hizkuntza baliabideak.



- Hitzen eta irudien arteko harremana

Euskarazko itzulpenean, testu originalean bezala, hitzen eta ilustrazioaren arteko harremana mantendu da, ez itzultzaileak ez argitaletxeak ez baitu lan originaleko edukia aldatu edo moldatu. Ungereren album honetan testuak eta irudiek garrantzi bera dute, uneoro daude bi elementuak orekan. Idatziz esan ezin daitekeena irudiz adierazten da, eta alderantziz. Oittinenek honi kongruentzia deituko dio (2003: 130), deskribatutako jarduera erakusten baitute ilustrazioek, hitzetan esaten dena bikoiztuz edo paralelizatuz. Irudietan bi kolore nagusi erabili ditu autoreak: beltza eta urdina. Kolore horiekin gaua eta iluntasuna irudikatzen dira, gau giroak sorrarazten duen beldurra eta ikara transmititu nahi zaizkio irakurleari. Ipuinean aurrera egin ahala, ordea, lapurrak hasierako maltzurkeria galtzen doazen heinean kolore ilun horiek ere desagertuz joango dira beste batzuei lekua uzteko, eta, era berean, irakurleak sentitzen duen beldurra desagertuz joango da.

Bide batez, ilustrazio horiek autoreak izandako haurtzaroari lotuta egon daitezke: Alemania naziaren ondorioak pairatu zituen eta ez zen gurasoekin bizi izan, aitona-amonekin baizik. Ondorioz, baliteke berak bizitako egoera baten aurrean egotea eta liburu honetako ilustrazioen eta idatzien bidez, autoreak bere bizipenak eta sentimenduak plazaratzea.

- Sintaxia eta erabilitako lexikoa

Ahots altuan irakurtzeko liburuen kasuan (haurrentzako album ilustratuak kasu), Oittinenen aburuz suposatzen da itzultzaileak irakurlearen lana ahalik eta gehien erraztu behar duela ozenki irakurtzeko orduan (2003: 132). Guk uste dugu Izagirrek alderdi hori lortu duela bere itzulpenean: esaldi motzak erabili ditu ipuin osoan zehar, puntu eta koma askorekin. Honenbestez, ondoriozta dezakegu ahoz gorako irakurketa leuna ahalbidetuko duen itzulpena egitea garrantzitsua dela itzultzailearentzat, Oittinenek eta Dollerupek dioten moduan (Oittinen, 2003; Dollerup, 2003). Alegia, erraz irakurtzeko testua sortzea izan du buruan Izagirrek.

Bestalde, albumaren lehen orrialdera joz gero, konturatuko gara «Baziren behin...» esaldia erabili duela itzultzaileak ipuina hasteko, hots, hartzaileak jasoko dituen lehen hitzak ipuinak hasteko formula tradizionala izango da. Ipuinen egitura eta hizkuntza aldetik «kulturalki errotuta» dauden eredu tradizional horiei jarraitzen ez bazaie, Dollerupen hitzetan «the translator may face an uphill struggle to become successful» (2003: 91). Badirudi, beraz, Izagirre kontziente dela irakurleari ezagun egingo zaionaren eta itzulpenaren arteko loturan; baliteke, halere, jatorrizkoan hala dagoelako itzuli izana modu horretara, eta ez tradizioagatik. Horrez gainera, esaldi bera aipagarria iruditu zaigu sonoritate aldetik ere. Honela dio testuak:

“Baziren behin  
Kapa beltz eta kapelu  
beltzeko  
Hiru bidelapur gaizto”

Literatur baliabide bat erabili da lerrootan hiru bidelapurak aurkezteko: aliterazioa. Nabarmena da p, z, k eta t kontsonanteen aliterazioa; lapurrekin batera, soinuon errepikapenen bidez, haien bortizkeriaren eta maltzurkeria aurkeztu nahi izan direla uste dugu alde batetik, eta erritmoa markatu nahi izan dela bestetik.

Erritmoarekin jarraituz, lapurrek gurpilak txikitzen dituzten orrialdean, esaldi hau aurkituko dugu:

«Gero  
aizkoraz txikitzen zituzten gurpilak...

eta irakurleak orrialdea eskuz pasata aurkituko du esaldiaren amaiera:

...Eta, iskiluarekin bidaiariei mehatxu eginda puska guztiak kentzen zizkieten».

Oittinenen aburuz, modu honetara erritmo ezberdin bat ezartzen du itzultzaileak: irakurleak bere kabuz pasatu behar duenez orria, istorioaren jarraipena bere esku geratzen da. Haurrek bereziki atsegin dute orrialde zehatz batean gelditzeko aukera izatea, arreta lehen behatu gabeko alderdietan finkatu baitezakete, eta, bide batez,

irakurketa aberasten dute testuaren eta irudiaren arteko dialektikak iradokitzen dizkien interpretazioekin (2003: 136).

Ulermen aldetik baina bi arazo nagusirekin egin dugu topo. Lehena azkeneko orrialdean dago. Honela dio testuak:

«Han edukitzen zituzten haurrak,  
beren gisa  
bizitzen hasteko gai ziren arte.

Etxez bete zuten  
gaztelu ingurua.»

Pasarte horretan, ez da garbi ulertzen etxe horietan nor bizi den: beren gisa bizitzen hasi diren haurrak ala beste norbait, eta irudiak ere ez digu pistarik ematen. Gaztelu ingurua etxez lapurrek bete zutela suposatu dugu, subjektuak horrela markatzen duelako. Gero, baina, horrela jarraitzen du:

«Herri bat osatu zuten,  
kapa gorri  
eta kapelu gorriko  
herritarren herria

Eta, eskerturik,  
harresi handi bat jaso  
zuten,  
hiru dorre ederrekin.

Lapurrentzako bana!»

Subjektua ez denez testu osoan aldatu, irakurleak herria lapurrek osatu zutela pentsatuko du, baina harrিতa geratuko da «eskerturik» harresia eta dorreak jaso zituztela irakurtzean, lapurrek beren buruei eginak direla ulertzen baita. Horregatik, pentsatu dugu lapurrekin bizi izandako umezurtzak izan zirela bai gaztelu ingurua etxez bete

zutenak, bai eskerturik harresia eta dorreak eraiki zituztenak. Ezin dugunez jakin originalean nola dagoen, baliteke agian arazoa testu originaletik bertatik «ekarri izana» euskarara, edo, bestela, irakurlearentzat testua sinpleago eta motzago egiteagatik jokatu izana horrela Izagirrek.

Bigarren ulermen arazoa, berriz, sintaxiari lotuta dago. Ondorengo erlatiboazko esaldia erabili da itzultzerako orduan:

«Eta hain maite zuten Uxue,  
haur umezurtz hura,  
non lapurrak  
umezurtzak lapurtzera abiatu  
ziren, [...]

Galtzagorri elkarteak *Hiru Bidelapurrrak* 8 urtetik gorakoentzat sailkatzen badu ere (Galtzagorri elkarteak, d.g), ez zaigu egokiena iruditzen adin horretarako album ilustratu batean hain funtzionala den egitura bat erabili izana; egitura horiek, Xabier Amurizak *Euskara Batuaren bigarren jaiotza* lanean dionez, ez baitira «dotore edo literarioki erabiltzekoak» (2010: 26). Altuan irakurtzen ari den helduak esaldia ulertu badezake ere, ez zaigu iruditzen entzule den haurraren kasuan hala izango denik. Horrenbestez, egitura beste modu batera itzuli zitekeela uste dugu, betiere hartzaileak testua ulertzeko ahalik eta esfortzu gutxien egite aldera.

Lexikoaren aldetik, euskarazkoa irakurtzean deigarria iruditu zaigun elementutako bat lapurrekin bizitzera joaten den neskatoaren izena da. Nahiz eta originala eskuartean ez izan, seguru gaude alemanezko bertsioan ipuineko haurraren izena ez zela Uxue. Dollerupek (2003: 94) ez dio izena aldatzeko joera honi arrazoi zehatzik aurkitzen (izenaren aldaketak xede hizkuntzako testuan esanahi berezirik ez badu); gure ustea da hartzailea eduki duela buruan Izagirrek kasu honetan, euskal izen batek euskal irakurlea gehiago hurbilduko duelako testura.

Halere, beste kasu batzuetan, euskal irakurlea hurbildu beharrean, gure zalantza da ez ote duen, nolabait, pixka bat urrundu. Esaterako, «eskopeta» beharrean «iskilu» erabili du itzultzaileak, «lapurtu»ren ordez «puska guztiak kendu» edo «ebatsi», eta «gustatu»

aditzaren lekuan «laket». Ez dira, inondik ere, itzulpen okerrak, baina hartzailea den haurrak ez du seguru asko erabilitako hiztegia hain erraz ulertuko. Izan liteke, agian, Ungererrek zioenaren ildotik itzuli izana horrela Izagirrek, hots, hitzak sinplifikatzea haurraren kalterako den ustean. Haatik, iruditzen zaigu irakurlearen ulermena ez dagoela guztiz bermatuta egindako hautuekin, eta hori dela itzulpen baten helburu garrantzitsuenetako bat.

Jarraian, guk itzulgai izan dugun testuaren azterketa egin dugu.

### 2.3 *Der Mondmann*: bertsio originalaren ezaugarriak

Album ilustratu honen ezaugarriak aztertzeko, berriz ere Christiane Norden (2009) eskeman oinarrituko gara. Horretarako, aurretik egin dugun bezala, kanpo faktoreak eta barne faktoreak bereiziko ditugu.

#### 2.3.1 Kanpo faktoreak

Lehenengo kanpo faktoreak aztertuko ditugu. Jean-Thomas “Tomi” Ungererrek idatzi zuen *Der Mondmann* album ilustratua, eta Suitzan argitaratu zen 1966an, Diogenes Verlag argitaletxearen eskutik. Garai hartan paperean merkaturatu bazen ere, gaur egun ebook eta audioliburu formatuetan eskuragarri dugu Interneten. Argitaletxearen orrialdean hasiera batean testua 4 urtetik gorako umeentzat sailkatzen bada ere, eskuartean duguna testu anbibalente bat izango litzateke, hartzailea heldua zein haurra izan daitekeelako. Funtzioari erreparatuz, historian zehar HGLko lan asko helburu didaktikoarekin egin izan direla aitatu dugu lehen, baina album ilustratu hau ez doa guztiz ildo horretatik. Ungererrek haurrari mundua benetan nolakoa den erakutsi nahi diola esan dugu arestian (ekar dezagun gogora Colomerrek (1999) eta Cerverak (1991) hau gaur egungo HGLaren oinarritzko funtziotzat dutela), beldurrezko egoeren aurrean umeek bere barruan ausardia bilatu eta beldur horri aurre egiteko. Autoreak garbi dio *Apartamento* aldizkariak eginiko elkarrizketan: «Children do not need toys, they need tools» (Morgenthaler, 2010). Autoreak obra honen bidez haurrari bultzadatxo hori eman

nahi izan diola deritzogu, beraz, alde batetik, eta entretenimendua eskaini bestetik, haurren kuriositatea pizteko eta irakurlegoak goza dezan. Horrenbestez, gurasoek haurrari beldurrak gainditzen laguntzeko aitzakiarekin erosi dezakete liburua, eta aldi berean, dibertigarria eta entretenigarria delako. Obraren funtzio artistikoa ere presente dago uneoro, ilustratzaile profesionala ere baden autore honek marrazki bizi eta koloretsuak erabiltzen baititu album osoan zehar.

### 2.3.2 Barne faktoreak

Barne faktoreak aztertuko ditugu orain. Fantasia eta errealitatearen zantzuak uztartzen diren album ilustratu honetan, ilargiko izaki berezi batek Lurrean bizitako abentura kontatzen da: Ilargi Gizona da, eta, espazioko etxe distiratsutik jendea ikusten du gauero Lurrean dibertitzen. Berak ere horren parte izan nahi duenez, gau batean kometa baten buztanari heldu eta Lurrera bidaiatuko du. Baina Ilargi Gizona ez da lurtarrak bezalakoa, desberdina da, eta horrek hamaika buruhauste emango dizkio.

Gure ustez, ipuin honen bidez Ungererrek kritika soziala egin nahi izan du: haurrei mundua nolakoa den erakutsi nahi die, gizarteak nola jokatzen duen ezezaguna den zerbaiten aurrean. Horretarako, arrotza den hori (Ilargi Gizona) pertsonaia xalo eta maitagarri gisa aurkezten du, haurrari erakusteko «ezezagunak» ez duela zertan etsaia izan. Gainera, lagunduko dion bakarra «gizarteak ahaztutako» pertsonaia marjinal bat izango da, bere ontasunagatik azkenean «merezitako errekonozimendua» lortuko duena. Azken horrekin, berriz ere, «give destiny its destination» esaldia datorkigu gogora, heroi bihurtuko baitu autoreak gizarteak baztertuta eduki duen zientzialaria.

Bestalde, autorearen gainontzeko ipuinetan bezala, bai testuak bai irudiak Ungererrek berak eginak dira. Lehenik eta behin testu-irudi harremana aztertu nahi izan dugu; alde batetik, irudien eta hitzen arteko sinbiosiaren garrantziaz kontziente zelako autorea (Phaidon, 2013), eta bestetik, ilustratzaile profesionala ere bazenez, testuarekiko harremanean horrek eraginik izan duen aztertzeke.

- Testu-irudi harremana

*Hiru Bidelapurrak* testuan bezala, hemen ere irudiak eta testuak elkarren osagarri dira. Testuak darama istorioaren ildoak, baina irudirik ez balego hartzaileak ez luke istorioa guztiz ulertuko. Gainera, iruditu zaigu irudiekin aparteko informazioa transmititzen saiatu dela autorea. Deigarria deritzogu, esaterako, gobernarien uniformeak xehetasun osoz marraztu dituela, txikitan bizi izandako nazien garaiek inspiratuta edo. Haurrak gobernari huts bat ikusiko badu ere, ahots altuan irakurtzen ari den helduarentzat hori pista bat izan liteke, gero Ilargi Gizonari egingo dioten jazarpenaren seinale.

Beraz, Ungererren lan honetan ere hitzen eta irudien arteko erlazioa definitzeko egokitzen jo dugu Oittinenen kongruentziaren kontzeptua, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, marrazkiak ezinbestekoak iruditzen baitzaizkigu haurrak pasarte batzuk ondo ulertu ditzen.

- Sintaxia eta erabilitako lexikoa

Bertsio originala irakurtzean, deigarriena gertatu zaiguna marko teorikoan aipatu duguna da, hots, ez dugula mugarik aurkitu hizkuntza aldetik. Are gehiago, badirudi autoreak nahita erabili duela lexiko aberatsa hurrek hitzak ikas ditzaten: esanahi bera duten adjektibo eta izen ezberdinak erabiltzeaz gain, lexiko eta aditz orokorrak alde batera utzi ditu, izen eta aditz espezifikagoei bide emanez, autoreak berak «every word is a part of a possible poem» (Phaidon, 2013) defenditzen baitzuen. Bestalde, ekar dezagun gogora Ungererrek hitzak sinplifikatzeaz zuen ideia, alegia, ez zela aberasgarria haurrentzat. Hurrengo atalean sakonduko dugu nola egin duen hori, ingelesezko eta gaztelaniazko itzulpenak jatorrizkoarekin konparatzerakoan.

#### 2.4 Gainerako hizkuntzetara eginiko itzulpena

Euskarazko itzulpena egiterako orduan, bertsio originalaz gain, ingelesezko eta gaztelaniazko itzulpenak ere kontsultatu ditugu. Ingelesezko itzulpena originala argitaratu eta urte batera atera zuen merkatura lehen aldiz Harper & Brothers argitaletxeak. Phaidon Press-ek berrargitaratu zuen 2009an (ez dakigu nor izan zen

itzultzailea) eta guk bertsio horixe erabili dugu. Gaztelaniazkoa berriz, 2012an kaleratu zuen Libros del Zorro Rojo argitaletxeak, Elena del Amo ibili zelarik itzultzaile lanetan. Itzultzaile honekin harremanetan jartzen saiatu gara argitaletxearen bidez, interesgarria iruditzen baitzitzaigun elkarrizketa bat egitea egindako itzulpenaren inguruan. Zoritxarrez, baina, ez dugu erantzunik jaso. Hala ere, gure ustea da ingeleseko itzulpenean oinarritu zela del Amo gaztelaniazkoa egiteko, originalaren eta ingelesezko bertsioaren artean dauden desberdintasun berak aurkitu baititugu originalaren eta gaztelaniazkoaren artean ere.

Hasieran, 9. orrialdean bai originala bai itzulpenak ahots altuan irakurtzeko egokiak direla aipatu dugu, koma eta puntuen erabileragatik irakurleari arnasa hartzeko denbora ematen diela eta. Hau hiru bertsiotan mantendu denez, hori errespetatzen saiatu gara gu ere.

Lehendik aipatutako beste fenomeno bat da Ungererrek, hartzailearen onurarako, lexiko aberatsa erabili duela, egoera bakoitzerako hitz espezifikoak aukeratuz eta orokortasunak saihestuz. Adibide batzuk jartzearren, «zoriontsu» adierazteko hiru adjektibo desberdin erabili ditu («zufrieden», «selig» eta «fröhlich»), edota zientzialariak eraikitakoari «Rakete», «Maschine» eta «Raumschiff» deitu dio. Horrezaz gainera, testu originaleko termino batzuek ez dute itzulpen zuzenik, oso zehatzak direlako. Ingelesezko bertsioan, beharbada alemanetik zuzenean itzuli delako, nolabait hiztegi oparo hori islatzea lortu dela deritzogu. Gaztelaniazkoan, saiatu da itzultzailea hori mantentzen, nahiz eta aurreko bi bertsioetan bezainbesteko barietatea ez dagoen erabilitako terminoetan (izan daiteke, akaso, itzultzeko zubi hizkuntza bat erabili duelako izatea hori, baina hau gure suposizio hutsa da, ezin izan baitugu berarekin hitz egin); dena den, iruditzen zaigu del Amok pasarte batzuetan libreago jokatzeko konpentsatu duela alde horretatik ipuina. Euskarara ekartzerako orduan, ordea, zailtasun batzuk aurkitu ditugu, beharbada oraindik ez dugulako gainontzeko hizkuntzek bezain hiztegi literario finkatua. Gure itzulpena aztertzerakoan sakonduko dugu nola jokatu dugun halakoetan.

Egiturari dagokionez, bestalde, bi aldaketa nabarmen aurkitu ditugu. Lehenengoa, bai ingeleseko itzulpenean bai gaztelaniazkoan originalean ez dagoen paragrafo oso bat txertatu dela da, hemen ikusi daitekeen bezala:



<b>Bertsioa</b>	<b>Paragrafoa</b>
<b>Originala</b>	Eines Nachts, als der Mondmann darüber nachgrübelte, weshalb er so gausam behandelt wurde, merkte er plötzlich, dass deine linke Seite fast verschwunden war. »Oha«, dachte er zufrieden, »ich bin, scheint's, beinah in meinem letzten Viertel!«
<b>Ingeleseaz</b>	One night as the Moon Man sat wondering why he was so cruelly treated, he noticed that his left side had faded. "Why, I must be in my third quarter," he thought happily. <i>Every night as the moon grew thinner and thinner so did the Moon Man, until at least he was able to squeeze through the bars of his window.</i>
<b>Gaztelaniaz</b>	Una noche, en el instante en que Hombre Luna se preguntaba por qué era tratado con tanta crueldad, notó que su lado izquierdo había desaparecido. «Está claro que debo de estar en mi tercera fase», pensó feliz. <i>A partir de entonces, cada noche menguó un poco más hasta que pudo deslizarse entre los barrotes de la ventana.</i>

Ondorioz, ia seguru esan dezakegu gaztelaniazkoa ingelesean oinarrituta egin dela. Itzulpenetan ez bezala, konturatu gara originalean ez dela zuzenean kontatzen Ilargi Gizonak nola egin zuen ihes kartzelatik. Ungererrek, agian, ez du hori bereziki azaldu nahi izan, haurrak orrialde horretako ilargiaren faseen marrazkiaren eta testuaren arteko lotura bere kabuz deskubritu dezan. Dena den, guk zati hori euskarazkoan ere ipintzea erabaki dugu, haurrari pasarte hobeto ulertzen laguntzen diola uste baitugu.

Egitura aldetik atentzioa eman digun bigarren elementua itzulpenetan originaleko testuaren eta irudiaren arteko lotura bat kendu dela da. Basoko zaratagatik jendea zer gertatu den ikustera doan orrialdean, letra txikiagoz eta izartxo batekin adierazi da izozki saltzailea ere bertaratuko zela, hurrengo orrialdeko irudiari erreferentzia eginez:



Irudian ikus dezakegun moduan, soldaduak, suhiltzaileak, poliziak... larrituta doaz zer gertatu den ikustera; izozki saltzailea, berriz, irribarrez doa hurbilduko diren kuxkuxeroei izozkia saltzera. Oittinenek dioenaren arabera (2003: 132), tipografiaren aldaketarekin autoreak irakurtzen dagoenari umore puntuarekin egin behar duela transmititu nahi diola uste dugu, egoera absurdoa are gehiago azpimarratzeko. Ingelesezkoan eta gaztelaniazkoan izartxoaren arrastorik ez badago ere, guk euskarazkoan mantentzea erabaki dugu, originalaren umore puntua ekartzeagatik.

Azkenik, ipuinaren hasieraren eta amaieraren arteko lotura iruzkindu nahiko genuke. Bai hasierako bai amaierako lerro horietan, badago originaletik itzulpenetara guztiz iritsi ez den elementu bat, ahots altuan irakurtzeko lanen bereizgarritako bat bada ere: errepikapena. Bai Oittinenek bai Dollerupek HGLko elementu garrantzitsutzat dute, ahots altuan irakurtzea errazteaz gain erritmoa markatzen duelako (Dollerup, 2003: 90; Oitinnen, 2003: 132-133). Irakurlea segituan konturatuko da ipuinaren hasierako lerroak errepikatzen direla istorioari bukaera emateko, eta gainera, marrazkiak ere errepikatu egiten dira, irudi bera aurkitu baitezakegu lehenengo eta azkenengo orrialdean. Ondorengo taulan ikus dezakegu hasierako eta amaierako esaldien lotura:

<b>Bertsioa</b>	<b>Ipuinaren hasiera/itxiera</b>
<b>Originala</b>	In sternklaren Nächten kann man den Mondmann <i>Himmel droben</i> sehen, wie er <i>zusammengekauert in seiner silbernen Wohnung sitzt</i> . / [...] sondern blieb für alle Zeiten <i>zusammengekauert in seiner silbernen Wohnung am Himmel droben</i> .
<b>Ingelesezkoa</b>	On clear, starry nights the Moon Man can be seen <i>curled up in his shimmering seat in space</i> . / [...] and remained ever after <i>curled up in his shimmering seat in space</i> .
<b>Gaztelaniazkoa</b>	En las noches claras y estrelladas, puedes ver <i>un ovillo en un brillante lugar del espacio</i> . Es Hombre Luna. / Se hizo <i>un ovillo</i> y se acurrucó <i>en su brillante lugar del espacio</i> , donde permanece desde entonces.

Bertsio originalean ipuinaren lehen paragrafoa eta azkena oso antzekoak direla ikus dezakegu, Ilargi Gizonaren «abentura» puntu berean hasten eta amaitzen dela irudikatuz. Badirudi ingelesezkoan egitura zirkular horretaz jabetu direla eta halaxe egin du itzultzaileak; gaztelaniazkoan, aldiz, bi esaldiek antzekotasuna badute ere, lotura hori ez da aurrekoetan bezain garbia. Guri garrantzitsua iruditu zaigu egitura ahalik eta berdintsuen mantentzea, halako borobiltasun bat ematen diolako istorioari. Hurrengo atalean ikusiko dugu gure hautua zein izan den horretarako, eta itzulpena egiterakoan nola jokatu dugun orokorrean.

### 3. GURE ITZULPENA

Bertsio originaletik abiatuta, eta aurretik aipatutako bi itzulpenak kontsultatuta, honakoa da guk eginiko itzulpena. Itzulpenaren ondoren euskaraz hartutako erabakiak komentatuko ditugu. Gainera, itzulpena egiteko Miriam Mendoza ipuin kontalariaren laguntza izan dugu; berak egindako iruzkinak oso lagungarriak izan zaizkigu, haurrentzako egokia eta entretenigarria den testua sortzeko alde batetik, eta gure lanak ahots altuan irakurtzeko ipuin gisa funtzionatuko lukeen jakiteko, bestetik. Hasiera batean, guk eginikoa gero berak saioaren batean erabiltzea zen asmoa, eta hurrekin izandako feedbacka jasotzea, baina, berriro ere, egoera dela-eta ez da posible izan.

Hona hemen, beraz, gure itzulpena:

<b>Bertsio originala</b>	<b>Ingelesezko itzulpena</b>	<b>Gaztelaniazko itzulpena</b>	<b>Gure itzulpena</b>
In sternklaren Nächten kann man den Mondmann am Himmel droben sehen, wie er zusammengekauert in seiner silbernen Wohnung sitzt.	On clear, starry nights the Moon Man can be seen curled up in his shimmering seat in space.	En las noches claras y estrelladas, puedes ver un ovillo en un brillante lugar del espacio. Es Hombre Luna.	Gau argi eta izartsuetan, gizontxo bat ikusi daiteke hor goian, bere zilar-koloreko etxean kuzkurtuta. Ilargi Gizona da.
Nacht für Nacht, wenn der Mondmann von seiner schwebenden Himmelskugel aus die Leute auf der Erde tanzen sah, wurde er ganz neidisch. »Wenn ich bloß ein einziges Mal bei dem Spaß mitmachen könnte«, dachte er. »Das Leben hier oben ist doch erbmärmlich langweilig!«	Every night from his drifting sphere, the Moon Man was filled with envy as he watched the earth people dance. "If only once I could join the fun," he thought. "Life up here is such bore."	Cada noche, desde su esfera flotante, Hombre Luna veía a la gente bailar en la Tierra. «¡Si al menos pudiera unirme a su diversión solo una vez!», pensaba con envidia. «La vida aquí es tan aburrida...».	Gauero-gauero, Ilargi Gizonak jendea ikusten zuen Lurrean dantzan bere zeruko biribil flotatzaitetik. Eta honela pentsatzen zuen inbidiaz beteta: «Behin bakarrik bada ere, beraiekin batera dantza egiterik izango banu! Nire bizitza hain da tristea eta aspergarria hemen goian...».
Eines Nachts sauste ein Komet an ihm vorbei. Der Mondmann sprang noch gerade rechtzeitig hoch und erwischte den Kometen bei seinem feurigen Schweif.	One night a shooting star flashed by. The Moon Man leaped just in time to catch the fiery tail of the comet.	Una noche pasó una estrella fugaz y, de un salto oportuno, Hombre Luna se agarró a su cola ardiente.	Gau batean kometa bat igaro zitzaion ondotik. Ilargi Gizonak salto egin eta, justu-justu, baina heldu egin zion kometaren suzko buztanari.
Als der Komet mit lautem Krach auf die Erde prallte, flohen die Tiere im Wald entsetzt von dennen.	The night creatures of the woods fled in terror at the loud crash of the fallen star.	Al oír el estruendo, los animales del bosque huyeron aterrados.	Kometak lurra jotzean izugarrizko zarata atera zuen, eta basoko animaliek izututa ihes egin zuten.
Der Lärm lockte Hunderte von Menschen aus der	The noise brought hundreds of	El ruido atrajo a cientos de personas de la	Zaratak ondoko herriko ehundaka pertsona erakarri zituen.

<p>nahen Stadt herbei. Soldaten jagten los, um die Erde zu verteidigen. Die Feuerwehr fuhr in aller Eile hin, um die lodernnden Flammen zu löschen. *Der Eisbudenmann wollte einen Verkaufsstand für die Neugierigen aufschlagen.</p>	<p>people from a nearby town. Soldiers sped to defend the earth. Firemen hastened to quench the flaming light. The ice cream man hurried to set up his stand for the spectators.</p>	<p>ciudad más cercana. Los soldados acudieron a toda velocidad a defender la Tierra, los bomberos corrieron a apagar la luz aún llameante y el heladero instaló deprisa su puesto para los espectadores.</p>	<p>Soldaduak ziztu bizian joan ziren Lurra defendatzera. Suhiltzaileak berehala joan ziren sugar gorriak itzaltzera.  *Izozki saltzailea ere aitaren batean joan zen, kuxkuxeroei izozkiak saldu nahi baitzizkien.</p>
<p>Als sie Ort und Stelle gefunden hatten, wusste niemand, wer das blasse, sanfte Geschöpf sein mochte, das da unten im Krater lag.</p>	<p>When they reached the site of the crash, no one could decide what the pale, soft creature lying in the crater could be.</p>	<p>Sin embargo, cuando llegaron al lugar del impacto, nadie pudo determinar qué podía ser aquella pálida y suave criatura que asomaba desde el fondo del cráter.</p>	<p>Talkaren lekura iritsi zirenean, inork ez zekien krateraren barrenetik agertzen zen izaki zurbil eta leun hura nor izan zitekeen.</p>
<p>Regierungsbeamte wurden alarmiert. Staatsmänner, Gelehrte und Generäle waren furchtbar aufgeregt. Sie bezeichneten den geheimnisvollen Gast als Eindringling.</p>	<p>Government officials were alerted. Statesmen, scientists, and generals panicked. They called the mysterious visitor an invader.</p>	<p>El alerta corrió entre los funcionarios públicos y el terror se apropió de los científicos, los generales y los hombres de Estado. Todos, sin excepción, llamaron «invasor» al misterioso visitante.</p>	<p>Gobernuko funtzionarioak jakinaren ganean jarri zituzten. Zientzialariak, jeneralak eta estatugizonak oso urduri zeuden, kirioak dantzaz. «Inbaditzaile» deitu zioten bisitari misterioitsuari.</p>
<p>Der Mondmann wurde ins Gefängnis geworfen, und ein Sondergericht musste den Fall untersuchen. Armer Mondmann... aus war's mit seinem Traum, unter bunten Lampions mit fröhlichen Leuten zu tanzen!</p>	<p>The moon man was thrown in jail while a special court conducted a criminal investigation. Poor Moon Man... his hopes of dancing among the merry crowds and</p>	<p>Encerraron a Hombre Luna en la cárcel mientras un tribunal especial realizaba una investigación criminal. Hombre Luna sintió que sus esperanzas de bailar entre una alegre multitud y sus luminosas</p>	<p>Ilargi Gizona espetxean sartu zuten eta auzitegi berezi batek kasua aztertu behar izan zuen. Gizontxo gaixoa... akabo koloretako argien azpian jende alaiarekin dantzatzeko zuen ametsa!</p>

	bright lanterns were crushed.	farolas se desvanecían en el aire.	
Eines Nachts, als der Mondmann darüber nachgrübelte, weshalb er so gausam behandelt wurde, merkte er plötzlich, dass deine linke Seite fast verschwunden war. »Oha«, dachte er zufrieden, »ich bin, scheint's, beinah in meinem letzten Viertel!«	<p>One night as the Moon Man sat wondering why he was so cruelly treated, he noticed that his left side had faded. "Why, I must be in my third quarter," he thought happily.</p> <p>Every night as the moon grew thinner and thinner so did the Moon Man, until at least he was able to squeeze through the bars of his window.</p>	<p>Una noche, en el instante en que Hombre Luna se preguntaba por qué era tratado con tanta crueldad, notó que su lado izquierdo había desaparecido. «Está claro que debo de estar en mi tercera fase», pensó feliz.</p> <p>A partir de entonces, cada noche menguó un poco más hasta que pudo deslizarse entre los barrotes de la ventana.</p>	<p>Ilargi Gizonak ez zuen ulertzen zergatik tratatzen zuten hain gaizki. Gau batean, ezkerreko aldea ia guztiz desagertu zitzaiola konturatu zen. «Hara!» pentsatu zuen pozik, «ilbeheran nago dagoeneko!».</p> <p>Gauero ilargia zeruan txikitzen ari zen heinean, Ilargi Gizona ere txikitzen-txikitzen joan zen, leihoko barroteen artetik ihes egitea lortu zuen arte.</p>
Als der Chef der Armee den unheimlichen Gefangenen besichtigen wollte, war die Zelle leer. Der General war wütend.	<p>When the head of the armed forces paid a visit to inspect the weird captive, he found the cell empty. The general was furious.</p>	<p>Cuando el jefe de las fuerzas armadas fue de visita para examinar al extraño cautivo, encontró la celda vacía. Al saberlo, el general enfureció.</p>	<p>Armadako burua preso misterioitsua ikustera joan zenean, hutsik aurkitu zuen ziega. Eta, noski, sutan jarri zen.</p>
Einige Nächte später, als der Mond im ersten Viertel stand, erschien auch ein Viertel vom Mondmann. Vierzehn Tage drauf hatte er seinen vollen Umfang wiedererlangt.	<p>Days later, as the moon reappeared in its first quarter, a quarter of the Moon Man came back. Two weeks later he had reached his full size again.</p>	<p>Días después, cuando la luna volvió a entrar en cuarto creciente, apareció también un cuarto de Hombre Luna. Y, dos semanas más tarde, había recuperado su tamaño normal.</p>	<p>Gau batzuk beranduago, ilgorarekin batera zeruan ilargiaren laurden bat agertu zenean, Ilargi Gizonaren laurden batek ere halaxe egin zuen. Bi asteren buruan bere tamaina osoa berreskuratzen zuen.</p>
Er war begeistert über seine Freiheit, wanderte umher und	<p>Delighted with his freedom, he wandered about,</p>	<p>Encantado con su libertad, empezó a</p>	<p>Pozak zoratzen zegoen aske zelako. Batera eta bestera ibili zen, hara</p>

sah zum ersten Mal die duftenden Blumen und die schönen Vögel und Schmetterlinge.	discovering the sweet-smelling flowers, and splendid birds and butterflies.	caminar y a descubrir con cada paso el suave aroma de las flores, los espléndidos pájaros y las mariposas.	eta hona, eta lehen aldiz ikusi zituen lore usaintsuak eta txori eta tximeleta ederrak.
Dann geriet er zufällig in ein Gartenfest, beidem die Leute in prächtigen Kostümen tanzten. »Seht mal! Da hat sich einer als Mann im Mond verkleidet!«, rief eine Dame. Der Mondmann tanzte viele Stunden lang und war selig.	He came upon a garden party where people in gorgeous costumes were dancing, “Look! Someone has come as the man in the moon,” a lady cried. The Moon Man danced blissfully for hours.	Así llegó a una fiesta al aire libre, donde mucha gente bailaba con magníficos trajes. –¡Mirad! Alguien ha venido disfrazado del hombre de la luna –exclamó una señora. Y Hombre Luna bailó feliz durante horas.	Horretan zela, kasualitatez, festa batekin egin zuen topo: dantzan ari zen jendea, eta jantzi ederrak zeramatzan soinean. –Begira, norbait etorri da ilargiko gizona bezala mozarrotuta! –egin zuen oihu emakume batek. Eta Ilargi Gizona ordu luzez egon zen zoriontsu dantzan.
Doch ach, ein brummiger Nachbar beschwerte sich bei der Polizei über die laute Musik! Als der Mondmann all die Gewehre und Uniformen sah, Erschrak er un rannte in den nahen Wald. Aber die Polizisten waren ihm auf der Spur, und eine wilde Jagd begann.	Alas, a grumpy killjoy complained of the late music to the police. Scared by the sight of the guns and uniforms, The Moon Man dashed off to the nearby woods, but he was spotted by the policemen and a wild chase began.	Por desgracia, un aguafiestas gruñón se quejó a la policía de que la música estaba durando hasta muy tarde. Asustado al ver las pistolas y los uniformes, Hombre Luna huyó al bosque. Pero los policías le descubrieron y empezó una salvaje persecución.	Baina zoritxarrez, festa-zapuztaile marmarti bat poliziarikexatu zitzaion musika altuegi zegoelako. Arma eta uniforme horiek guztiak ikustean beldurtu egin zen Ilargi Gizona, eta korrika ihes egin zuen inguruko basora. Poliziak, ordea, atzetik jarraitu zion: harrapatu egin nahi zuten!
Der Mondmann war flinker als die Polizisten und sauste querfeldein. In einer einsamen Gegend stieß er auf ein altes Schloss.	Swiftly outracing the police, the Moon Man shot across the countryside. In a lonely place he came upon an ancient castle.	Hombre Luna se alejó con rapidez. A gran velocidad, cruzó el campo y llegó a un solitario paraje en el que había un castillo muy antiguo.	Ilargi Gizona poliziak baino bizkorragoa zen, eta lasterka pasa zituen basoak eta zelaiak. Paraje bakarti batean gaztelu zahar batekin egin zuen topo.
Dort wurde er von einem längst	There he was welcomed by a	Allí fue muy bien recibido por un	Harrera beroa egin zion bertan bizi zen

<p>vergessenen Gelehrten, dem Doktor Bunsen van der Dunkel, freundlich aufgenommen. Seit Jahrhunderten hatte der Doktor an einem Raumschiff gebaut, das zum Mond fliegen sollte.</p>	<p>long-forgotten scientist, Doktor Bunsen van der Dunkel. For centuries he had been perfecting a spacecraft to reach the moon.</p>	<p>científico olvidado, el doctor Bunsen van derDunkel, que durante siglos había estado perfeccionando una nave espacial para llegar a la luna.</p>	<p>zientzialari jakintsuak. Anbrosio Potasiobarrena doktorea zen, baina dagoeneko inor ez zen gogoratzen berarekin. Mendeak zeramatzan ilargira joango zen espazio-ontzia eraikitzen.</p>
<p>Jetzt war die Maschine fertig und ruhte im Turm auf ihrer Abschussrampe. Aber Doktor van der Dunkel war zu alt und zu dick geworden un passte nicht mehr in die Kapsel. Er bat seinen Besucher, der erste Fluggast zu sein.</p> <p>Der Mondmann hatte inzwischen eingesehen, dass er ja doch nie in Frieden auf diesem Planeten würde leben können, und war einverstanden.</p>	<p>Now finished, the intricate machine rested on its launch pad in a castle turret. Doktor van der Dunkel had grown too old and too fat to fit into the capsule. He asked his guest to be his first passenger. The Moon Man, who had realized that he could never live peacefully on this planet, agreed to go.</p>	<p>Ahora su obra estaba terminada y descansaba en una torre del castillo, lista para el lanzamiento. El doctor Van derDunkel era demasiado viejo y gordo para caber en la cápsula. Por eso, pidió a su invitado que fuera el primer pasajero. Y Hombre Luna, que había comprendido que nunca podría vivir en paz en este planeta, aceptó.</p>	<p>Bukatuta zeukan makina, jaurtiketako dorrean prest. Baina urte haietan, Potasiobarrena doktorea zahartu eta gizendu egin zen, eta ez zen kabitzen kapsulan. Bere gonbidatuari eskatu zion lehen bidaiaria izan zedin.</p> <p>Ilargi gizonak ulertua zuen ez zela sekula bakean biziko planeta honetan, eta onartu egin zuen.</p>
<p>Doktor van der Dunkel wollte so lange warten, bis der Mond in sein letztes Viertel eingetreten war. »Bis dahin ist der Mondmann dünn genug geworden und past in die Kapsel hinein«, dachte er. Ein paar Nächte drauf nahm der Mondmann Abschied von seinem Wohltäter. Mit Tränen in den Augen wünschten sie</p>	<p>Doktor van der Dunkel decided to wait for the moon to enter its third quarter. "By then The Moon Man will have grown small enough to fit into the capsule," he thought. A few nights later, the Moon Man took leave of his benefactor. With tears in their</p>	<p>El doctor Van derDunkel decidió esperar a que la luna estuviera en cuarto menguante. «Para entonces Hombre Luna se habrá hecho tan pequeño como para caber en la cápsula», pensó. Varias noches más tarde, ambos se despidieron con lágrimas en los ojos. Luego, el rugido del cohete</p>	<p>Potasiobarrena doktoreak ilargia ilbeheran egon arte itxaron nahi zuen. «Ordurako Ilargi Gizona kapsulan sartzeko bezain argala egongo da», pentsatu zuen. Gau batzuk beranduago, Ilargi Gizonak agur esan zion doktoreari. Elkar agurtu zuten, malkoei ezin eutsirik. Gero, kohete orrolaria suziri bat bezala abiatu zen espaziorantz.</p>



einander alles Gute. Dann raste die heulende Rakete mit dem Mondmann in den Weltraum hinaus.	eyes they bade each other farewell. Then the Moon Man blasted off with a roar of rockets.	dijo adiós.	
Weil dem Doktor van der Dunkel der Start seines Raumschiffes geglückt war, wurde ihm endlich die längst verdiente Anerkennung zuteil. Er wurde zu Präsidenten eines wichtigen wissenschaftlichen Komitees ernannt.	Having succeeded in the launching of his spacecraft, Doktor van der Dunkel at last received the recognition he had so long deserved. He was elected chairman of an important scientific committee.	Como el lanzamiento de la nave espacial había sido un éxito, el doctor van derDunkel recibió por fin el reconocimiento que durante tanto tiempo había merecido. Además, fue elegido presidente de un importante comité científico.	Potasiobarrena doktoreak bere espaziontzia jaurtitzean arrakasta izan zuenez, aspalditik merezitako errekonozimendua eman zioten azkenean. Batzorde zientifiko garrantzitsu bateko presidente aukeratu zuten.
Der Mondmann aber hatte seine Neugier befriedigt und Kehre nie wieder auf die Erde zurück, sondern blieb für alle Zeiten zussamengekauert in seiner silbernen Wohnung am Himmel droben.	Having satisfied his curiosity, the Moon Man never returned to earth and remained ever after curled up in his shimmering seat in space.	Hombre Luna nunca más volvió a la Tierra. Su curiosidad había sido satisfecha. Se hizo un ovillo y se acurrucó en su brillante lugar del espacio, donde permanece desde entonces.	Ilargi Gizonak, bestalde, asebate zuen bere jakin-mina eta ez zen inoiz gehiago Lurrera itzuli. Betirako geratu zen hor goian, bere zilar koloreko etxean kuzkurtuta.

Itzultzerakoan nola jokatu dugun azaltzeari ekingo diogu orain. Horretarako, aurreko atalaren amaieran esandakoari helduko diogu, hots, ipuinaren irekiera eta itxiera nola ekarri ditugun euskarara. Esaldi horiek errepikatzearen garrantzia aipatzen genuen, ipuinari egitura zirkularraren forma ematen dionez gero. Guk ere egitura hori errespetatu nahi izan dugu ahal zen heinean: hasiera eta amaiera ahalik eta antzekoenak bihurtu ditugu, beti ere ahots altuan irakurtzean naturaltasuna lehenesten dugula kontuan hartuta.

Ildo beretik jarraituz, bertsio originalean errepikapen bakarra dagoela ikusi dugu («Nachts für Nachts»); gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenetan, aldiz, ez da halako

errepikapenik ageri. Guk, ordea, aipaturikoaz gain, beste batzuk ere ipini ditugu euskarazkoan, Mendozak esan baitugu halakoek haurrari istorioaren ildo jarraitzen laguntzen dietela, eta bide batez, ahots altuan irakurtzen ari denak arreta errazago bereganatzen duela, haurra ondoren datorrenaren zain geratzen baita misterio eta suspense puntuaren aurrean. Arrazoi beragatik garrantzitsua iruditu zaigu baita ere bertsio originalean aurkitutako paralelismoak itzulpenean errespetatzea.

Bestalde, lehen aitatu dugu izandako erronka nagusitako bat alemanezkoan erabilitako lexiko aberatsa nola euskaratu izan dela; terminoak nola itzuli erabakitzeko, geure burua duda-mudatan aurkitu baitugu hasieran. Irismen handiagoa duten hizkuntza hegemonikoetan ez bezala, badirudi oraindik halako beldur edo lotsa bat dugula euskaldunok itzulpenetan libreago jokatzeko orduan. Honi hiru arrazoi posible aurkitu dizkiogu: alde batetik, Ungererrek zioen modura, oraindik haurrak ez ditugula guztiz serio hartzen eta haien ulermena zalantzan jartzen dugula; eta, horrenbestez, ez garela ausartzen normalitatetik kanpoko hitz berriak erabiltzen. Bigarrena, gaztelaniazko kutsua duten hitzenganako arbuioagatik, askotan zalantzan jartzen baitugu haien *euskalduntasuna*. Eta azkena Zubillagak bere lanean dioen fenomeno dugu, hots, euskara hizkuntza gutxitua den aldetik, jakin badakigula haur guztiek ez dutela euskara maila bera edukiko, eta itzulpenak egiterakoan sinplifikatzeko joerara garamatza horrek (2013: 293). Guk, beraz, erdibideko soluzioa eman nahi izan diegu hiztegiagatik sortutako arazoei: nolabaiteko askatasunez jokatzeko erabaki dugu sentimendu eta aurreiritzi horiek gainditzeko bidean aurrerapauso bat ematearren, baina beti ere haur euskaldunari gertukoa egingo zaion testua sortzeko helburuarekin.

Esaterako, deseroso sentitzen ginen hasieran «flotatzaile», «funtzionario» edo «errekonozimendu» erabiltzean. Erdarazko kutsua duten hitzenganako aurreiritziengatik izan daiteke agian, edo haurren ulermena gutxieteko dugun joeragatik. Bertsio originaleko terminoek, baina, horixe esan nahi dute; hala dio Elhuyar hiztegiak, eta beraz, guk ere hitzok erabiltzea erabaki dugu: alde batetik, haur euskaldunaren ulermena ez zaigulako iruditzen beste hiru bertsioak jasoko dituenarena baino mugatuagoa denik, eta, bestetik, aurreiritziak deuseztatzeko helburuarekin jokatu dugu horrela, normaltasuna lortzearren; hitz bat zenbat eta gehiago erabili orduan eta ezagunagoa egingo baitzaio hartzaileari.

Garcia de Torok bere lanean dio itzultzerakoan joera dagoela batzuetan haur hartzailak moralki desegokiak diren elementuetatik babesteko, eta, ondorioz, haurrentzat desegokitzat jotzen diren terminoak leundu egiten direla (2014: 124). Arreta berezia ipini dugu arlo horretan, ez baitugu hala jokatu nahi izan. Horrenbestez, «arma» edo «polizia» hitzak bere horretan itzuli ditugu. Badaude, hala ere, desberdin euskaratu ditugun esaldiak. Honakoa, adibidez:

<b>Bertsioa</b>	<b>Esaldia</b>
<b>Alemanez</b>	Aber die Polizisten waren ihm auf der Spur, und <i>eine wilde Jagd</i> begann.
<b>Euskaraz</b>	Poliziak, ordea, atzetik jarraitu zion: <i>harrapatu egin nahi zuten!</i>

Desberdin itzuli badugu ez da izan haurrari ipuina leuntzeko asmoz, baizik eta testuak ahozkotasunean irabaz dezan. Esaldia haurrentzako ulerterrazagoa bihurtzeaz gain, ahots altuan irakurtzen dabilen helduari ere lana erraztu nahi izan diogu. Izan ere, euskaraz literalki «jazarpen basatia hasi zen» izango litzateke, baina gehiago gustatzen zaigu taulan jarritakoa, esaldiari intentsitatea ematen diolako eta egoeraren larritasuna islatzen duelako.

Itzulpenean ikus dezakegu, beraz, ez garela uneoro originalarekiko guztiz fidelak izan. Esate baterako, egokitzapenak egin ditugu: bai bertsio originalean bai itzulpenetan «Bunsen van der Dunkel» izena du zientzialariak, baina ez zitzaigun haur euskaldunarentzat gertukoa egiten. Beraz, Izagirrek *Hiru Bidelapurrak* ipuinean egin zuen bezala, guk ere pertsonaiaren izena euskaratzea erabaki dugu, eta «Anbrosio Potasiobarrena» deitu diogu zientzialariari. Horrela, gainera, umore puntua ere ipini nahi izan diogu testuari, haurrari grazia egingo diolakoan.

Berdin egin dugu «brummiger Nachbar» itzultzerakoan ere. Itzulpen literala «bizilagun marmarti» izango litzateke, baina guri gehiago gustatu zaigu ingeleseko eta gaztelaniazko testuek eskaintzen ziguten terminoa, «grumpy killjoy» eta «aguafiestas gruñón», hurrenez hurren. Izan ere, poliziari deitzen dianak literalki festa zapuzten du ipuinean, eta egokia iruditu zaigu, horregatik, askatasun gehixeagoz jokatzuz «festa-zapuztaile marmarti» erabiltzea. Guk ere, Ungererrek zioen bezala, gauza bakoitzari

bere izenez deitu nahi izan diogu, eta umore aldetik ipuinak gehiago irabazten duela deritzogu horrela.

Itzulpenaren xehetasun guzti-guztiak ipini ezin ditugunez, amaitzeko aipatu nahi genuke eginiko aldaketak eta hartutako askatasunak beti ere hartzailea buruan egin ditugula, eta ahots altuan irakurtzen dagoenari lana errazteko intentzioarekin. Ungererren ahotsa euskarara ahalik eta fidelen ekartzen saiatu gara, gure itzulpenak, haurra entretenitzeaz gain, autorearen ideiak eta baloreak zabaltzeko balioko duen itzaropenez.

#### 4. HGLKO LANAK ARGITARATZEA EUSKAL LITERATUR SISTEMAN

Itzulpenaren proiektua ez genuen GRALarekin batera amaitutzat jo nahi; bidean aurrera segi nahi genuen: argitaletxeekin harremanetan jarri eta egindako lana argitaratu; eta, bide batez, argitaratze, zuzentze eta maketatze prozesua zer nolakoa izan den komentatu. Alabaina, ez dela hain erraza ikusi dugu.

Pamielakoei idatzi genien lehendabizi, baina ezezkoa jaso genuen. Haiek esan zigutenez, Kalandrakakoekin argitaratzen dituzte liburuak koedizioan, egile-eskubideen tasak partekatzeagatik. Hizkuntza-eskubideak hizkuntzako eta herrialdeko erosten dira (gaztelaniaz argitaratzeko Mexikon, egile-eskubideak erosi behar dira; baina gaztelaniaz Espainian argitaratzeko, berriz, berrito erosi behar dira egile-eskubideak). Euskararen kasuan, egile-eskubide bakarrak omen daude, euskarari dagozkionak, alegia. Kalandraka argitaletxeok zazpi edo bederatzi hizkuntzatarako egile-eskubideak erosten dituzte, eta horietako bat euskara izaten da, Pamielakoekin batera. Hala, inprimaketa eta argitaratze-prozesu osoa merkatzen omen da.

Pamielak eta Kalandrakak Tomi Ungererren beste bi liburu ere argitaratu zituztela ikusi genuen, eta horregatik jo genuen haiengana. Interesa izan zuten, baina egile-eskubideen inguruko kontsulta egin, eta gaztelaniazko eskubideak Bartzelonako Libros de Zorro Rojo argitaletxeak dauzkala jakin zuten, eta horrek bideak ixten omen dizkio Pamiela/Kalandraka koedizioari. Gauzak horrela izanik, Txalapartakoekin jarri ginen harremanetan, baina ordurako COVID-19aren egoera gainean genuen, eta horrek hankaz gora jarri digu proiektua, halako larrialdi-egoeran argitalpen-proiektuak

geldituta omen baitituzte. Nolanahi den, Txalapartako editoreak azaldu zigunez, Libros del Zorro Rojok gaztelaniazko egile-eskubideak dauzkala-eta, euskarazko argitalpen baterako bideak itxita daudela esan baziguten, esan nahi omen du argitaletxe horrek euskaraz argitaratzeko aukera ere gordeta daukala egile-eskubideen kontratuko klausula batean. Beste argitalpen-proiektu batekin gauza bera gertatu omen zen Zorro Rojo argitaletxearekin.

Ikusi dugu, honenbestez, euskal argitaletxeak egile-eskubideen salerosketan agente txikiak direla, eta, beraz, ez dela aski zerbait argitaratu nahi izatea, irizpide literarioek adinako pisua baitute irizpide ekonomikoek. Nolanahi ere, espero dugu eginiko lana kaxoi batean ez geratzea, eta atea jotzen jarraituko dugu.

## 5. ONDORIOAK

*Der Mondmann* euskaratzerakoan gertutik ikusi dugu HGLko itzulpen batek nolako lana eskatzen duen. Zenbait ondorio atera ditugu itzulpenak egiterakoan hartutako erabakiengatik, alde batetik, eta itzulpenaren atzean dagoen lan kargagatik, bestetik.

HGLaren barruan testu batzuk haurrei ez ezik helduei ere zuzenduta egon daitezkeela esan dugu hasieran, testu anbibalenteei erreferentzia eginez. Kontuan izanda hainbat sari irabazitako autorea «helduen munduan» ilustratzaile profesionala zela, eta «politikoki zuzenak» ez ziren gaiei buruz jarduten zela, gure itzulgaiak, haurrari zuzenduta egoteaz gain, helduentzat interpretazio sofistikuagoa gordetzen duela esan genezake. Gainera, hainbat elementuk (esaldien luzerak, puntuazio marka ugariak...) ahots altuan irakurtzeko ipuin egokia bihurtzen dute, eta horri Maurice Sendakek liburuaz zioena gehitzen badiogu, ondoriozta dezakegu haurra bezainbeste saiatu direla heldua erakartzen.

Estatusari dagokionez, Shaviten kritika gogoratuko dugu HGLaren inguruan: maila txikiagoko generotzat hartzen dela, haurrari buruz dugun ikuspegiak baldintzatuta. Albumaren autorea, Tomi Ungerer, bat etorriko da horrekin, haurren identitatearen alde agertzen baitzen serioago hartu behar ditugula esanez. Hala ere, Ungererren album ilustratuak kritika onak eta sariak jasotzeaz gain, animazioko filma ere baduenez gero,

lanaren estatusa maila handikoa dela deritzogu (beti ere HGLaren barruan); eta genero hori helduen literaturaren mailan jartzen ez bada ere, ez zaizkigu arrazoiak falta Ungererren lana urruti ez dabilela pentsatzeko.

Itzulpenei dagokienez, ingelesezko eta gaztelaniazko bertsioek originalarekiko apur bat askatasunez jokatu dutela ikusi dugu. Horrekin ez du esan nahi, ordea, itzulpenak desegokiak direnik: bertsio originaleko mezua xede-testuko hartzailearengana iristen dela uste dugu, eta kontziente gara, bestalde, itzultzaileak itzulgaia xehe-xehe aztertzeke eta autoreari buruz ahalik eta gehien dokumentatzeko ez duela ez guk adinako denbora izan ezta bibliografia zabala ere.

Originalaren azterketa egiteko prozesuan ohartu gara gu, esaterako, ipuin honek Colomerrek eta Cerverak gaur egungo HGLan azpimarratzen duten funtzio sozializatzailerak betetzen duela: haurrari mundu erreala nolakoa den erakusten dio istorioak, Ungererren beraren esperientzian oinarrituta: Europatik New Yorkera joan zenean, ipuineko pertsonaia bezala sentitu zela zioen autoreak, arrotz, desberdina zen mundu berri baten aurrean, eta hortik otu zitzaioela obra hau egiteko ideia. Honenbestez, Ungererren lanek autobiografikotik zerbait badutela esan dezakegu, aztertutako *Hiru Bidelapurrak* eta *Der Mondmannen* lanetan bere bizitzako zertzeladak aurki baititzakegu.

Bestalde, aipatu dugu baita ere gure itzulpena egiterakoan izandako erronken aurrean (lexiko aberatsa, batez ere) nola jokatu dugun: autoreak erabilitako hiztegi zabala bere horretan ekarri nahi izan dugu, eta, aldi berean, hartzaileak album ilustratuaz ahalik eta gehien gozatzea izan dugu helburu, horretarako gure ustez hauturik egokienak eginez. Horretarako, baina, Riitta Oittinenek aipatutako jarrera hartu behar izan dugu batzuetan: egokitzapenak egitera jo dugu hala jokatzeko beharrezkoa zela ikusi dugunean (testua gure kulturara hurbiltzeko helburuarekin), beti ere hartzailearentzako onena izango delakoan eta errespetu guztiarekin.

Oro har, garrantzitsua iruditzen zitzaigun autorearen ideiak ahalik eta fidelen ekartzea, eta guk hartutako erabakiek fideltasun hori errespetatzea. Lan honekin, beraz, ekarpen hori egin nahi izan diogu guk euskal HGLari. Izan ere, ikusi dugu Ungererrek haurrarekiko kontzeptu aurrerakoia zuela, eta autorearen iritzi berekoa da Miriam

Mendoza ipuin kontalaria, hots, politikoki guztiz zuzenak ez diren ipuinak aberasgarriak direla haur zein helduentzat, askotan espero ez diren emozio eta zirrarak eragiten dituztelako.

Azkenik Garcia de Torok (2014) bere lanean dioena azpimarratu nahiko genuke, hots, testuak itxuraz errazak izateak ez duela esan nahi itzulpen-prozesua erraza izango denik. Mendozaren arabera, euskarara itzultitako album ilustratuak «orokorrean nahiko txukun» badaude ere, editorial jakin batzuek bideratutako itzulpenetan akatsak ikusi izan dituela esan digu, eta mindu egiten duela haurrek jasoko dituzten ereduari arreta berezirik ez zaiela eman ikusteak. Autore askok (Garcia de Torok (2014) eta Manu Lopez Gasenik (2000), besteak beste) gai horri buruz diotenarekin bat gatoz geu ere: Itzulpengintzan HGLa unibertsitateko irakasgai modura lantzen ez denez, edozein itzultzailek egin dezake lan arlo honetan, itzulpenaren beste adar batzuetan ez bezala ez baita espezializaziorik behar (juridikoan, esaterako). Guk, unibertsitatean, HGLko lanak alemanetik gaztelaniara nola itzultzen diren gertutik ikusteko aukera izan badugu ere, ez dugu, zoritxarrez, alor horretako prestakuntzarik jaso euskaraz. Zoritxarrez diogu, Lopez Gasenik (2000) dioen bezala, gaztelaniaz bakarrik jaso dugulako trebakuntza arlo honetan; eta gaur egun euskal HGL sisteman itzulpenek % 60 hartzen dutela kontuan hartuta, oso aberasgarria eta baliagarria iruditzen zaigu horretara bideratutako prestakuntza euskaraz jasotzea etorkizuneko itzultzaile izango bagara.

## BIBLIOGRAFIA

AMURIZA, Xabier (2010): *Euskara Batuaren bigarren jaiotza: osoa, lehiakorra, nazionala*. Oiartzun: Lanku Bertso Zerbitzuak.

BABAR (2019): “Hombre Luna”, *Revista Babaren*. <<http://revistababar.com/wp/hombre-luna/>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)

CERVERA, Juan (1991): *Teoría de la literatura infantil*. Bilbao: Mensajero.

COLOMER, Teresa (1999): *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis.

COLOMER, Teresa (2002): *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

CORTES, José R. (2019): «”Nuevos Amigos” de Tomi Ungerer», *Un abrazo lector* blogean, martxoaren 20an. <<http://unabrazolector.blogspot.com/2019/03/nuevos-amigos-de-tomi-ungerer.html>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-19)

DOLLERUP, Cay (2003): Translation for Reading Aloud. *Meta*. 48 (1-2): 81-103.

EWERS, Hans-Heino (2009): *Fundamental Concepts of Children’s Literature Research*. New York: Routledge.

BERNSTEIN, Brad (zuzendaria) (2012): *Far out isn’t far enough* (Filma). AEB.

GALTZAGORRI ELKARTEA (1990): *Hiru Bidelapurrak*. <<https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/hiru-bidelapurrak>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)

GARCÍA DE TORO, Cristina. (2014): “Traducir literatura para niños: de la teoría a la práctica”, *Trans. Revista de Traductología*, 18. zk., 123-137 orr.

GRENZ, Dagmar (1990): *Kinderliteratur – Literatur auch für Erwachsene? Zum Verhältnis von Kinderliteratur und Erwachsenenliteratur*. München: Fink.



- LAMBIEK COMICLOPEDIA (2020): *Tomi Ungerer*. <[https://www.lambiek.net/artists/u/ungerer\\_t.htm](https://www.lambiek.net/artists/u/ungerer_t.htm)> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)
- LÓPEZ GASENI, Jose Manuel (2000): “Euskaratutako Haur eta Gazte Literaturaren azterketa: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak”, *Senez*, 22: 31-49.
- MENDOZA, Miriam (2020): Argitaratu gabeko elkarrizketa (2020-05-10)
- MORGENTHALER, Daniel. (2010): “The beauty of frog’s legs” *Apartamento* aldizkarian, issue 6. Bartzelona: Apartamento publishing S.L. <<https://www.apartamentomagazine.com/stories/tomi-ungerer-the-beauty-of-frogs-legs/>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-20)
- NIKOLAJEVA, Maria & SCOTT, Carole (2001): *How picturebooks work*. New York & London: Garland Publishing.
- NORD, Christiane (2009): *Textanalyse und Übersetzen*. Tübingen: Julius Groos Verlag.
- O’CONNEL, (1999): “Translating for Children”, *The Translation of Children’s Literature, A Readeren* (Gillian Lathey-k editatua). Clevedon: Multi- lingual Matters, 15-24 orr.
- OITTINEN, Riitta (2003): *Where the Wild Things Are: Translating Picture Books. Meta*. 48 (1-2): 128-141.
- OITTINEN, Riita (2005): *Traducir para niños* (Isabel PASCUAL eta Gisela MARCELOk itzulia). Las Palmas de Gran Canaria: Universidad de las Palmas de Gran Canaria, Servicio de Publicaciones.
- OLIVIER, Josep (2018): «“Nuevos Amigos” de Tomi Ungerer», *Papel en Blanco* blogean, abenduaren 5ean. <<https://papelenblanco.com/nuevos-amigos-de-tomi-ungerer-283850a6e5b6/>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)
- SHAVIT, Zohar (1986): *Poetics of children’s literature*. Georgia: University of Georgia Press Athens and London.
- TOMI UNGERER: OFFICIAL SITE (2017): *Books*. <<https://www.tomiungerer.com/books/>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-18)

TOMI UNGERER: OFFICIAL SITE (2017): *Moon Man*.  
<<https://www.tomiungerer.com/books/childrens-books/moon-man/>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)

UNGERER, Tomi (1966): *Der Mondmann*. Zürich: Diogenes Verlag.

UNGERER, Tomi (2011): *Hiru Bidelapurrak*. (Koldo IZAGIRREK itzulia). Amets egiteko liburuak bilduma. Pontevedra: Kalandraka.

UNGERER, Tomi (2009): *Moon Man*. New York: Phaidon Press.

UNGERER, Tomi (2012): *Hombre Luna*. Bartzelona: Libros del Zorro Rojo.

ROCCO, Staino (2019) “Tomi Ungerer Interview” *Youtuben*  
<<https://www.youtube.com/watch?v=W0YR8EfD3dw&t=77s>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-17)

PHAIDON (2013): “Tomi Ungerer on writing for children” *Youtuben*  
<<https://www.youtube.com/watch?v=A5PNMUQUc5c&t=1s>> (azken kontsulta-eguna: 2020-05-16)

ZUBILLAGA, Naroa (2013): *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.